

Bidaiarien sarrerak %1 gehitu ziren Euskal AEn 2012ko maiatzean

Gaualdiek %4ko igoera izan dute

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: 2012ko maiatzean, 206.125 bidaiari-sarrera erregistratu ziren, aurreko urteko hil berean baino 2.207 sarrera gehiago, %1eko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %6 ugartu dira Bizkaian; %5 jaitsi dira Araban eta %3 Gipuzkoan.

Euskal AEn, estatuko bidaiarien sarrerak %4 murriztu dira. Estatutiko bidaiariak %2 gehiago izan dira Bizkaian; %4 gutxiago Araban eta %11 gutxiago Gipuzkoan. Euskal AEn atzerriarrak %10 ugartu dira. Araban %-8, Bizkaian %15 eta Gipuzkoan %9.

Estatutik etorritako bidaiarien artean, gehitu egin ziren, besteak beste, Katalunia, Andaluzia eta Galiziatik etorritakoak. Gutxitu egin ziren Madril, Balear uharte, Gaztela-Mantxa eta Euskal AEtik beretik etorritakoak.

Atzerriko bidaiarien artean, igo dira batez ere, Frantziatik, Alemaniatik, Erresuma Batutik, eta Iberoamerikatik etorritakoak. Jaitsi, Herbehereetatik eta AEB-Kanadatik.

2012ko maiatzeko gaualdiak: 389.082; iazko maiatzaren aldean %4ko igoera, 13.601 gaualdi gehiago. Gaualdiek urte arteko bilakaera positiboa izan zuten Araban (%3) eta Bizkaian (%9); Gipuzkoan %3 gutxitu ziren.

Euskal AEn batez besteko egonaldiaren iraupena 2011ko maiatzeko 1,84 egunetik pasa den maiatzeko 1,89ra joan da, %3ko hazkundera. Araban 2011ko 1,76 egunetik 1,91era igo da; Bizkaian 1,85etik 1,89ra; Gipuzkoan 1,87, 2011koan bezalaxe.

Plazakako betetze-maila %4 hazi da, %47,66 izan da 2012ko maiatzean Euskal AE osoan. Igoerak gehien bat Bizkaian eragin dio, %9, 2011ko maiatzeko %45,03tik aurtengo %49,11ra. Gipuzkoan pittin bat igo da, %48,81etik %49,27ra. Araban oso jaitsiera txikia, %40,31etik %40,23ra.

NEKAZARITZA-TURISMOA

Sarrerak %2 igo eta gualdiak %7 jaitsi dira 2011ko maiatzaren aldean

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Lehengo maiatzean 10.085 erregistratu ziren, 2011koan baino %2 gehiago. Gipuzkoan %3ko jaitsiera; Bizkaian aldaketarik ez eta Araban %21eko igoera. Estatuko bidaiariak %1 gutxiago izan dira Euskal AEn: Araban %13 hazi dira, %2 Bizkaian; %7 gutxiago Gipuzkoan. Atzerriarren kopurua igo egin da (%25) Euskal AEn; portzentajez dezente igo dira Gipuzkoan eta Araban, eta jaitsi Bizkaian.

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan egindako gualdiak 19.868 izan dira maiatzean, lehengo urtean baino %7 gutxiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan dira Araban (%1); Gipuzkoan (%8) eta Bizkaian (%11) jaitsi egin dira.

Bidaiariko batez besteko egonaldia gutxitu egin zen Euskal AE osoan, 2011ko maiatzaren aldean: duela urtebete 2,17 egun; azken maiatz honetan 1,97. Araban %16ko jaitsiera dago, 2011ko maiatzeko 2,27 egunetik 2012ko 1,90era. Bizkaian %11ko jaitsiera, 2,24tik 1,99ra. Gipuzkoan %5eko jaitsiera, 2,09tik 1,99ra.

Plazakako betetze-maila %8 murriztu da, %17,12tik %15,75era; Bizkaian (%8) eta Gipuzkoan (%12) izandako jaitsierek eraginda. Araban %2 igo da.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	05 2012	(%)	05 2011	(%)	Δ %	05 2012	(%)	05 2011	(%)	Δ %	05 2012	(%)	05 2011	(%)	Δ %	05 2012	(%)	05 2011	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	389.082	100	375.481	100	4	55.973	100	54.275	100	3	193.713	100	178.066	100	9	139.396	100	143.140	100	-3
Estatukoak	240.262	62	239.075	64	0	40.182	72	39.534	73	2	122.349	63	113.853	64	7	77.731	56	85.688	60	-9
Atzerrikoak	148.820	38	136.406	36	9	15.791	28	14.741	27	7	71.364	37	64.213	36	11	61.665	44	57.452	40	7
Hiriburua	251.970	65	238.205	63	6	44.147	79	38.336	71	15	129.007	67	117.906	66	9	78.816	57	81.963	57	-4
Litoral	43.239	11	40.169	11	8	-	-	-	-	-	12.779	7	11.633	7	10	30.460	22	28.536	20	7
Barnealdea	93.873	24	97.107	26	-3	11.826	21	15.939	29	-26	51.927	27	48.527	27	7	30.120	22	32.641	23	-8
BIDAIARIEN SARRERAK	206.125	100	203.918	100	1	29.285	100	30.873	100	-5	102.344	100	96.350	100	6	74.496	100	76.695	100	-3
Estatukoak	127.224	62	132.034	65	-4	21.463	73	22.405	73	-4	65.087	64	63.906	66	2	40.674	55	45.723	60	-11
Atzerrikoak	78.901	38	71.884	35	10	7.822	27	8.468	27	-8	37.257	36	32.444	34	15	33.822	45	30.972	40	9
Hiriburua	130.469	63	126.230	62	3	21.473	73	20.710	67	4	66.362	65	62.078	64	7	42.634	57	43.442	57	-2
Litoral	21.008	10	21.158	10	-1	-	-	-	-	-	7.116	7	7.319	8	-3	13.892	19	13.839	18	0
Barnealdea	54.648	27	56.530	28	-3	7.812	27	10.163	33	-23	28.866	28	26.953	28	7	17.970	24	19.414	25	-7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,89		1,84		3	1,91		1,76		9	1,89		1,85		2	1,87		1,87		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	47,66		45,61		4	40,23		40,31		0	49,11		45,03		9	49,27		48,81		1
Hiriburua	54,87		52,58		4	44,77		41,51		8	57,19		53,65		7	58,38		58,16		0
Litoral	47,72		42,88		11	-		-		-	32,93		28,93		14	58,80		53,36		10
Barnealdea	35,21		35,11		0	29,19		37,70		-23	39,94		35,83		11	31,34		33,02		-5
BETETZE-MAILA GELAKA	58,98		56,06		5	49,83		47,65		5	62,90		57,88		9	58,11		57,22		2
Hiriburua	68,46		65,09		5	57,24		50,26		14	73,11		68,62		7	68,85		68,45		1
Litoral	53,86		48,77		10	-		-		-	38,53		35,46		9	64,01		58,21		10
Barnealdea	44,24		43,42		2	32,32		42,09		-23	51,52		45,60		13	39,71		41,17		-4
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	19.868	100	21.359	100	-7	4.230	100	4.183	100	1	5.679	100	6.385	100	-11	9.959	100	10.791	100	-8
Estatukoak	16.578	83	17.745	83	-7	3.823	90	3.723	89	3	4.681	82	5.029	79	-7	8.074	81	8.993	83	-10
Atzerrikoak	3.290	17	3.614	17	-9	407	10	460	11	-12	998	18	1.356	21	-26	1.885	19	1.798	17	5
BIDAIARIEN SARRERAK	10.085	100	9.850	100	2	2.228	100	1.839	100	21	2.849	100	2.856	100	0	5.008	100	5.155	100	-3
Estatukoak	8.574	85	8.637	88	-1	1.975	89	1.745	95	13	2.451	86	2.408	84	2	4.148	83	4.484	87	-7
Atzerrikoak	1.511	15	1.213	12	25	253	11	94	5	169	398	14	448	16	-11	860	17	671	13	28
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,97		2,17		-9	1,90		2,27		-16	1,99		2,24		-11	1,99		2,09		-5
BETETZE-MAILA PLAZAKA	15,75		17,12		-8	15,35		15,08		2	14,74		15,98		-8	16,59		18,91		-12
BETETZE-MAILA GELAKA	17,46		19,25		-9	16,36		16,74		-2	17,10		18,13		-6	18,22		21,29		-14

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

ETHI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua